

GIL 68 Lezea leizea



Eginoko kareharrien eta Leze leizearen itxura orokorra.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 52' 51,34" N

Long.: 2° 16' 26,66" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 559.288,33 m

Y: 4.747.850,88 m




Nola iritsi

N-1ean, A-3012 errepideranzko irteera hartu, Eginorako norabidean. Eginotik, mende-balderantz jo, eta, bidegurutzean, eskuinerantz seinalatuta dagoen bidea hartu.

Bada beste aukera bat: N-1 errepidetik atera A-3020 errepiderantz, Albeizerako norabidean (E), Ilarduiarantz jarraitu, eta, erdigunetik pasatutakoan, bidegurutzean, ezkerrera egin.

Bi kasuetan, 800 bat metro aurreratu, eta ekialderantz joan; han, aparkaleku bat dago. Kobaren sarrera 400 metro iparraldera dago, eta ekialdera igotzen den bide batetik iristen da hara.



Leze leizea.



Leizeari buruzko interpretazio-panela.

GILaren deskribapen laburra

Leze leizea barrunbe handi bat da (80 bat metro garai). Altzania mendilerroa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duena. Erdi-Goi Albiarreko Egino formazioko sakonera txikiko itsas plataformako kareharri mitritikoetan zulatutako barrunbe bat da, non fosil asko baitaude.

Ugarraundi izenez ezagutzen den haraneko uraren irteera natural gisa sortu zen leizea. Artzanegi ibaia, zeina leizearen barrualdean baitoa, bidea irekiz joan zen sistema karstikoan barrena, eta lurpeko ibai bilakatu zen; leizearen sarreran du irteera naturala. Hainbat ur-jauzi daude endokarstaren barruan, sarrera-ahoaren eta irteera-ahoaren artean dagoen desnibel handia dela eta.

Adibide egokia da ikusteko nola hodi karstikoek, batzuetan, kanpoko baliabide hidrikoak (ibaiak) kanalizatzen dituzten ibilguko tarte batean. Leze leizeak disoluzio karstikoaren ezaugarriak ditu (ganga-formako sabaia), bai eta ibai-higadura handiarenak ere.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 52, GIL 21.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 81.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				●
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/113-IV.pdf>
- Quintanar Soto, A.B. (2003): *El Cretácico medio del extremo suroriental del anticlinorio de Bilbao: Estratigrafía y Sedimentología*. EHUko doktore-tesia. 217 or.